

## Mendi lasterkarien Euskalmushing taldea sortu da

Zezeilaren 17an egin zan Euskalmushing Trail Running taldearen aurkezpena Igorren. Oihana Azkorbebeitiak, Asier Larruzeak, Ander Iñarrak eta Joseba Escudero Nagusien mailan, eta Ricardo Santamariak, Jone Oart-Artetak eta Alluitz Bilbak Junior mailako lasterkariek osotuten dabe taldea. Arratian oinarriak dituan Euskalmushing maskotenzako denda-kateak sortu dau taldea, kirolariei "dirua eta materialagaz lagunduteko". **15. orrialdea**



## Aldarrikapen ekintzez beteko da Arratia martiaren 8an

Gure bizitzakaz negoziarik ez! lelopean batuko dira Igorreko manifestazinora Arratiako herrietako andrak, zaintza sistema feminista bat aldarrikatzeko.

**H**errietatik urtendako zutabeak batuko dira Igorren eskualde mailako manifestazinora joateko, baina aurretik, herrietan, elkarretaratzeak eta lapiko-jotea Lemoan be egongo dira. Hurrengo egunean, Ganbara Feminista izenpean, Arratiako Gazte Egungo Feminista ospatuko dabe Areatzan.

Eta urtero lez, jarduera kulturalaz osotutako agenda jente-artean konzientiazino feministea bultzatzen saiatuko da. Edade guztietako publikorako, zineak, antzerkiak, diziplina askotako ikuskizunek eta kontzertuek, andren atzo eta gaurko egoera mahaigaineratuko dabe gero eta jente gehiago batu daiten burruka feministara. **12. eta 13. orrialdeak**



### AREATZA/BEDIA

## Areatza eta Bediako udalek aurrekontuak onartu ditue

Areatzan EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz; eta Bedian, EAJ-PNVren aldekoakaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz onartu ziran 2024ko udal kontuak. Bietan HAPOa (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) egiteko diru partida garrantzitsuak dagoz. **5. eta 7. orrialdeak**



### LEMOA

## Elizondon frontoia egiteko ala ez, parte-hartze prozesua abian

Lemoako Udalak parte-hartze prozesu bat abiatu dau herritarrek Elizondon frontoia egin ala ez eta zelangoa gura daben ebazteko. Frontoia eregiz, erabilten ez dan eleizearen ondoko plaza, jentea alkartzeko leku moduan berreskuratu gura dau Udalak. Botoa online emon ahal da QR kode baten bitartez edo udaletxeko hautetsontzian. **5. orrialdea**



### IGORRE

## Bonodenda kanpaina abiatzear

Martiaren 11tik aurrera Igorrekoek erosi leikiez Bonodenda kanpainako bonuak, herriko komertzioetan %33 merkeago erosteko. Izan be, aurreko kanpainen lege, 10 euroan erositako bonuek 15 euroko balioa daukie kanpainari atxikitutako 47 komertzioetan. Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan erosi daitezke, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Igorren errolatuta ez dagozanek martiaren 18tik apirilaren 5era edo bonuak agortu arte erosi ahal izango dabez.

Kanpainaren helburua herriko komertzioa sustatzea da. **6. orrialdea**



# Literatura txokoa

## HORMAKO PAPER HORIA

Charlotte Perkins-Gilman (1860-1935) funtsezko irudia da XIX. mende amaierako Estatu Batuetako testuinguru historiko zein kulturalaren. Idazle lez, fikziozko istorioen zerrenda luzeak haren ibilbide literario oparoan agerian ixten dau eta, aldi berean, teoria feministen inguruko hainbat lan eta idazlan Ipar Amerikako Viktoriar sasoiko andra pentsalari eta aurrerakoen sinbolo bilakatu dabe.

Enparauko feministen aldean, emakumeen boto eskubidea defendatzetik harago, Charlotte Perkins-Gilmanek euren bizi-askatasun eskubidea aldarrikatzen eban, bai eremu publikoan, bai pribatuan be. Ildo horretan, jente-artea finkatutakoaren kontra,

gizon-andren lan-banaketa tradizionala aldatzeko proposamena izan zan Charlotte Perkins-Gilmanek mobimentu feministeari egin eutsan ekarpen nagusienetako. Zaletasuna eta aktibismoa konbinatuz, luman topau eban bere pentsamendua zabaltzeko eta instituzinoak aldatzeko baliabide sendoa. Baina ibilitakoa erraz suertau ez, eta, gainera, horren trukean jaso beharrekoa ez zan bape samurra izan.


Charles Walter Stetson margolariagaz ezkondu zanean hasi zan gainbehera. Garrantzi bako urduritasun zantzua depresino sakon bilakatu jakon Khaterine alabea jaio ostean, eta orduan hasi zan S. Weir Mitchel doktoarearen tratamendua jasoten. Hak agindu-

takoa bat etorran orduko jentearte tradizionalak emakumeari egotzitako ama eta etxeoandre funtzinoakaz. Beraz, sei astez bizimodu ahal bezain etxeoiena egiteko agindu ei eutsan, baina, batez be, bere bizitza osoan zehar lumea eta arkatza erabiltea galarazo eutsan.

Bada, hein handi baten horixe bera jasoten jako *Hormako paper horia* izeneko ipuin luzeako andra protagonisteari. Alde horretatik, behintzat, esan geinke lan autobiografiko baten aurrean gogozala. Protagonistea, andrea, medikua dan senarrak berak aholkatuta, etxe zuloan gordeten da, senideakaz be hartu-emonik izan barik, guztiengandik urrun eta bakartua. Atzanean, bere mundu

klaustrofobikoa beilegi koloreko papera daukan gela batera mugatzen da. Hasikeran erabat gorrotatuko dau gela hori eta jasoten jakona ez dau ulertuko. Baina, egunak aurrera joan ahala senarragazko menpekotasunaz jaubetuz joango da, bere emakumetasunaz eta andregandik espero daitekezan zentzubakeriez ohartuko da. *Hormako paper horia* literatura feministearen adibide goiztiar esanguratsua dogu.

Ane Miren Rilo



Hormako paper horia  
Charlotte Perkins-Gilman  
Itzuleratzailea: Ana I. Morales  
Hizkuntza: Sava Ruiz - Anara Seman

**Charlotte Perkins-Gilman Itzultzailea: Ana I. Morales**

**Hormako paper horia**

**Edo! argitaletxea, 2012**

**76 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Zezeilaren 26tik martiaren 3ra**  
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Saillburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

### 22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.  
**Martiaren 4tik 10era**  
Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

### 22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.  
**Martiaren 11tik 17ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

### 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.  
**Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara**  
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 600 74 63  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13  
**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 01 85

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

**Mankomunitatea** 94 631 17 17 / [mankomunitatea.ariatia@bizkaia.org](mailto:mankomunitatea.ariatia@bizkaia.org)  
**Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea** 94 631 55 25 / [gorbeialde@gorbeialdea.com](mailto:gorbeialde@gorbeialdea.com)  
**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79  
**IKE** 94 673 62 51 / [kulturetxea@igorre.net](mailto:kulturetxea@igorre.net)  
**Euskotren** 94 433 33 33 / [euskotren.eus](mailto:euskotren.eus)  
**Areatzako Notarioria** 94 673 92 26  
**Errota Fundazioa** 688 854 543 / [info@errota.eus](mailto:info@errota.eus)  
**Arratiako Musika Eskola** 94 631 73 52 / [www.arratiakomusikaeskola.eus](http://www.arratiakomusikaeskola.eus)

### Bizkaibus 94 612 55 55

#### 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiko: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### 3911 linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.  
**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

#### 3912 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.  
**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

#### 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.  
**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20. \*Basauriraino bakarrik.  
**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20. \*Artearaino bakarrik.

**Ugaoitik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

**Ugaoitik Arteara.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

**Ugaoitik Igorrera.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriagatik Zeberiora.** Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkarteak. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** [beginu@begitu.eus](mailto:beginu@begitu.eus). **Webgunea:** [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus). **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** [beazpiri@begitu.eus](mailto:beazpiri@begitu.eus). **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzitu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



## ZEURE BERBEA

### Non dago muga?

Fisikoa, Bizkaia eta Araba artean, Ubiden. Baina, eta garrantziarena? Ubiden ez. Ubideko hegoaldeko sarbiderako N240 errepidean obrak egiten dabiz. Ubideko Udalak joan dan mendetik eskatzen ibili dan lanak. Azkenean, hasi egiten dira, eta, logikoa danez, nahasmen-duak sortzean ditue. Baina obrek aurrera egin ahala, segurtasun arazoak antzematen dira. Arazoa planteetan da, danak ados, garrantzitsuena personak dirala eta persona guztien segurtasuna. Aplikau beharreko neurri batzuk adosten dira. Horrains, ondo. Baina momentua helduta, eta Ubideko iparraldeko sarbidean arrisku handia dagoala

ikusita, hasikerako galderara itzuliko gara: Non dago muga? Ubideko biztanle kopuruan? Ubideko hautesle eroldan? Ubideztarren ideologian? Joan dan mendean, eta idatziz, Bizkaiko Foru Aldundiak erantzun eban tarte horretan ez zala istripurik izan, eta ez ebalu ikusten preminarik obrak egiteko. Bueno, ba mende honetan bardin jarraitzen dogu. Bizkaian orratz bat gara. Beraz, ez gara garrantzitsuak. Eta erraza da, gauza bakarra eskatzen dogu, N240 errepidean ahal diran neurri guztiak jartzea segurtasuna bermatzeko, langileena eta erabiltzaileena.

Non dago ekiten hasteko muga? Lehen hildakoan?

AGURTZANE BENGEOA ABASOLO

## ERETXIA

### Dani Alves beste erasotzaileen modukoa da

Dani Alvesen epaia beste mugari bat izan da Estaduan androi justizia egiteko bidean. Auzitegiak "indarkeria heroikorik" behar ez dala argudiatu, onartu dau andron gorputzak ez daukala zertan zauririk euki indarrezko sarketan be ez, min handia emon arren. Izan be, odolaren egiaztagiria ikuspegi androzentrikoa da: gizonak ulertzen dabe odolik ez badago, minik ez dala egon eta ez dagoala oindino.

Hedabideetan bersino bi aurrez aurre ipini dabez: salatzailearena eta bost bider aldatu dauan erasotzailearena. Begi-bistakoa da biek ez daukiela sinisgarritasun maila bera: zalantza barik, bereari eutsi deusanak eta, egiazkotasun zantzuengaitik, salatzailearen bersinoa babestu gura izan dabe hedabideek.

Estaduko Auzitegi Gorenak, gainera, jurisprudenzian jasota dauka, salatzailearen testigantzea ontzat emotekoa dala, hiru baldintza beteten diranean:

1) Ez daukala erasotzaileagaz, horretaz kanpo, bestelako gatazkarik.

2) Bere bersinoak egiantzekotasuna daukala.

3) Denporan aurreran, errelato berari eutsi deusala, xehetasunak aldatuta edo ahaztuta be bai, giza-oroimenaren berezko ezaugarriak diralako.

Horrenbestez, Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia aplikauta, hedabideek ez eukien zalantzarik euki behar, eta are gitxiago, erasotzaile guzurti baten berbak zabaldu, andrearen sinisgarritasuna auzitan ipinteko. Jakina, Auzitegi Gorenak andron testigantzea frogatzat hartzeako hiru baldintza horreek ez ebazan onartu 2011n andra bat bertako epaile izentau arte.

Oindino larriagoa suertatu da salatzailearen aurkako eraso



### MARIA GOROSARRI GONZALEZ

EHuko irakaslea eta *Contra la banalización del feminismo* liburuaren egilea

bat bidaltzeko: epaileek errazoa emoten badeuskue be, markauta biziko gara.

Erasotzaileek, eraso batek gure bizitza osoa hondoratzeko poderea daukala sinistarazo gura deuskue. Horregaitik, 1995etik Espainiako Zigor Kodeak ez dauka "bortxaketa" deliturik. Ordura arte, ohorea kentzean euskun delitua zalako, mobimentu feministeak burruka egin eban sexu-askatasunaren aurkako delitutzat hartzeako. Hedabideek ez dabe oindino ikasi eta "bortxaketa" izen estigmatizatzaile hori erabilten dabe, "sexu eraso" esan beharrean. Orduan, ama matxistek uste dau salatzailea ezin daitekela zorienttua izan eta, hala bada, erasorik egon zalako dala ulertzen dau, sanferminetako erasotzaileen antzera.

Antzeko egiteko euki dau bikotekideak. Senarrak eraso egiteko preminarik ez daukala aditzera emoteko erabili dau Alvesek. Begi-bistako guzurra da: erasotzaileek gura dabelako egiten dabe eraso.

'Soilik baietz da baietz' legeak eraso haren gabeziak konpondu gura izan ebazan. Baina agirian geratu da bi, behintzat, ez dabezala hobetu. Alde batetik, espetxealdia esperotakoa baino txikiagoa izango da: Fiskaltzak eskatutakoaren erdikoa eta salatzaileak eskatu eban herenekoa.

Beste aldetik, oin konturatu gara legeak ez ebalu diruaren baldintza aringarria aurreikus. Legeak sexu erasoaren kalte-ordaina kalkuletako sistema barritzailea ekarri eban eta, gainera, erasotzaileak insolbenteak diranean, Estaduak kalte-ordaina aurreratuko deutso biktimeari. Orduan, bere burua errubakotzat aurkezten dauanak zergaitik itxi dau maileguan, aldi berean, kalte-ordainerako diru kopuru altua (150.000€)? erruduntzat joten badabe, espetxealdia arintzeko atxakiagaz. Nagore Laffage hil eban Diego Yllanese be zirikitu horixe erabili eban, zigorra jaisteko. Nagoreri egoera injustu hori al bait arinen konponduko dauan legea zor deusagu.

estigmatizatzailea. Horretarako, bere irudia zabaldu dabe, epaitegian hartu ezin dabena hartzeako: mendekua. Guri mezu

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLII). Kale berbakunea sustatu guran

#### MEDITAZINOA (I)

-Hi Mikel! Hik meditau egiten **dok eztok?**

-Bai egiten **jonat** bai!!

-Eta ze esan gura **jok?**

-Ba kontua **dona...** Buff! **Eztona** fazila espliketako ba!!

-Baina ze misterio **jekok** ba?

-Gaur egun kanporantza bizi **gozana!** **Etxekune** denporarik momentu bat hartu eta gure barruagaz bakarrean egoteko.

-Egia!! Nik ixiltasuna dauanean telebisinoa izetu behar **joat!!**





## LUMATUTEN



CLARA LUJA

## Guzurak, guzur handiak eta estadistika

**A**lerta gorria! Supermegadenporalea! Sekulako ekaitza izango dogu! Eta, eguna ailegetan danean, euria egiten dau baina ez hainbeste, eta geratzen zara etxean, betozko handiagaz eta, zeure buruan galdera ikur handi batez. Zenbat aldiz gertatu da hau azken lauzpabost urtetan? Zenbatetan gertatuko da datozan urteetan?

Kontua da, zergaitik? Eguraldi aurreikuspenek hobera egin dabe; neurtzeko gero eta tresna zehatzagoak dagoz, eta interpretetako, gero eta programa informatiko aurreratuagoak. Orduan, zergaitik?

Ezinezkoa da jakitea meteorologia izan barik, baina nik hipotesi bat aurkeztuko dot: estadistika-eren errua da. Datu horreekaz modelo matematikoa egiten dabe eta horren arabera mota bateko edo abiadura bateko haizea badago, orduan superdenporalea egongo

da beti. Eta haizea zakarragoa bada supermegadenporalea.

Baina natura ez da matematikoa, eta estadistika guzurti handia da (eta ez dot neuk bakarrik esaten: nire lehenengo urteko estadistikako unibersidadeko testuliburuak inoan: "hiru guzur mota dagoz: guzurak, guzur handiak eta estadistika") eta bere krimenik handiena egia lez aurkezten dala da. Zientzia errefutaezina.

Kontua da estadistika gizakiok egiten dogula, eta geu be ez gara matematika hutsa. Ez gara makina super errazionalak: subjektiboak eta partzialak gara, eta askotan zientzia erabilten dogu gure argudioa indartzeko. Eta estadistika argudio indartsua izan daiteke, zuk gura dozuna esaten badau. Eta hori lortzea ez da hain zaila laginak eta baldintzak aukeratzuz.

Egia da ni be ez nazala matematikoa, eta nire errazoi ez-zientifiko eta subjektiboak daukadaz estadistika gorrotatzeko. Nire ibilbide unibersitarioan oztupo handia izan da eta jarraitzen dau izaten, eta, ahal baneu estadistika sute handi batera botako neuke, gero pelikuletako gaizkileek legez barre egiteko: kar, kar, kar.

Baina egia be bada estadistika erabilgarria eta interesgarria izan daitekela askotan, zeozarren eragina neurtzeko, edota zeozarren irudi orokorra izateko. Informazino asko emon ahal deusku, eta ebatzgarria izan. Baina ez da egia osoa.

Gizakiok ez garalako matematikoa, natura be ez dan moduan.

Eta estadistika supermega guzurtia dalako.

## ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

## Katua

**J**oxe leher eginda ailegau da etxera, zuzen-zuzenean oheratu da. Atzo egurrezko txabola bat egiteko piezak furgonetaz garraiatu behar izan ebazan, Galiziaraino, herenegun Errumaniatik beste enkargu batez etorri, eta bihar batek daki nora. Egun osoa emoten dau errepidean banketxeak furgoneta madarikatua eta pisua ez kentzeako, enparaukoa emazte ohiak eroan eban, bizkoarragoa izan zan. Holan dagoz gauzak, urte hasieran langabezia gelditu zanetik ez dauka fakturak ordaintzeko nahiko dirurik, ezta ia-ia ahora ezer erodateko be. Ordu txarrean, gainera, egin dau Galiziakoa. Jakin ezkerro, ez eban egingo, ze, ez zan konturatu txabolea hain pitsua zanik, furgonetea lar zamatu eban eta, bidaia gauzez egin arren, Guardia Zibilak birritan geldiarazo dau. Txiripaz ez dabe furgonetea ibilgetuta itxi larregiko zamea erodatearren. Horixe baino ez eban behar, gainera furgonetea galdu! Baina lana, lana da, batez be hain gitxi dagoanean. Ia ezer lo egin barik beste enkargu bat egin behar dau oin, Ilean ohe bat hartu eta Kale Nagusiko atso bateri eroan. Kontu erraza.

-Eskailera aluok! Ez dakit zergaitik ezin dabezan zabalago egin!

Joxek amasestuka sartu dau ohea biltzean dauan kutxa handia atsoaren pisuan. Emakumeak atsegina

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**K**ostako lagun batek "Arratiako itsaso txikia" deitzean eutsan Arratia errekeari Arantzazutik pasetan danean. Batez be handi doanean egiten dauan zarateagaitik, itsasoarenaren antzekoa dalakoan. Gure itsaso txikiaren orroa, ozen entzuten dot etxetik.

Egunotan, denporaleagaz, itsasoa zakar eta olatu handiakaz dago; errekea be handi dago eta ur lasterrak dakar. Izan be, denporalea dagoan egun ilunetan, handi egiten da errekea, Miguel Hernandezen zezena legez ("Como el toro me crezco ante el castigo").

Antzera ibiltzen dira errekea eta zezena, handi, sasoi latzetan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariok@gmail.com](mailto:beeredariok@gmail.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Oñativia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bilbao  
T. 94 631 50 39  
Kalejuru Zerbete 101  
R.P.S. 21/06



AREATZA/DIMA

## Diman eta Areatzan Bizkarsoro pelikulea ikusteko aukerea egongo da lehenengo hamabostaldian

### Erredakzioa

Arratiako estrenaldia Igorren izan eban Josu Martinezen *Bizkarsoro* filmak zezeilaren 18an. Hainbat herritan eskainiko dabe pelikulea; Diman, martiaren 1ean, 18:30ean, eskolako kamanan eta Areatzan, hilaren 15ean, 18:30ean udaletxean. Diman, pelikula ostean solasaldia egongo da pelikulearen lantaldeko kide batez. Artean, aprilean eskainiko da.

Urtailean, UEMAK hitzamen bat sinatu eban Gastibelza Filmak ekoizleagaz eta Dijitalidatea Banatzaileagaz UEMAKo udalerritan eskaintzeko erraztasunak emoteko. Emonaldiaren kostuaren erdia UEMAK hartuko dau bere gain.

### Euskerearen gaineko filma

Euskerearen kontrako zapalkuntzeari aurre egiteko tresnak badagozala erakusteko egin eban

Martinezek film hau. *Bizkarsoro*, 1915etik 1982ra gertatutako bost istorio erreal jasoten ditu. Ahozko lekukotzetan eta idazleen testuetan oinarrituta, Ipar Euskal Herriko herri txiki batek bizi izandako aldaketa sozialak erakusten ditu, baita euskerearen zuzartze eta urruntzea eta euskerearen bizirauteko burrukea be.



LEMOA

## Udalak parte-hartze prozesu bat abiatu dau Elizondon frontoia egiteko

Prozesuan, Lemoako herritarrek frontoi bat eraikiz Elizondo birmoldatzeko proposamenaren inguruko eretxia emon eta gustukoaren daben aukerearen aldeko botoa emoteko aukerea dago.

### Erredakzioa

Proiektua ez gauzatzea be aukera bat izango da. Botoa online emon ahal da QR kode baten bitartez edo udaletxean ipiniko dan hautetsontzian boto-papera sartuz.


Izan be, premina jakin batzuetan oinarritutako diagnostikoa egin dau Udalak, eta premina horreei erantzuteko proposamen bi diseinatu ditu. Aukera horreek aurkezpen publikoan azaldu ziran zezeilaren 23an. Han egon ziran Daniel Carballo proiektuaren arkitektoa, Esther Iturrioz alkatea eta Lemoako Esku Pilota Taldeko ordezkariak.

### Lemoa Barria proiektua

Elizondo jentea alkartzeko leku moduan berreskuratzea dauka

helburu proiektuak. Aurrera atez ezker, eleizearen ondoko plazea, gaur egun ia erabiltzen ez dana, aire zabaleko frontoi batek ordeztuko leuke, umek pelotan egiteko leku barri bat euki dagien.

Gainera, plazako lanak aprobe-txauko litzatekez irisgarritasuna hobetuteko eta auzoa barrizatze. Hori dala-ta, proiektuaren gizareratze prozesuak Lemoa Barria izena hartu dau.



AREATZA

## Aurreko urteetakoei jarraipena emoten deutesen aurrekontua onartu dau Areatzak

Zezeilaren 14an onartu zan Areatzan 2024ko Udal aurrekontua, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Kontuon arabera, guztira 1.906.398,08 euro kudeatuko ditu Udalak aurten. Areatza 1338, S.L.rako 70.000 euro dagoz.

### Erredakzioa

Aurreko urteetako kontuei jarraipena emoten deutsee 2024koek. Izan be, Peru Perez de Anuzita Areatzako alkatearen arabera "prozesu parte-hartzaile potente bat egin zan 2022an" eta orduan, urteetarako konpromisoak hartu ziran. Esate baterako, As-katasun kalean egin beharreko lanak, alokairuan ipinteko etxebizitza sozialetako lur zatia erostea edo alde zaharreko egiturazko eta mantenimentuzko lanak.

Energiari jagokonean, kale argiteri guztia led sistemara pasau da daborduko eta aurten, horregaz segiduteko eraikinetako argizteria led-era aldatu eta komunitate energetikoa sortzea gura dabe. Oin arte egindakoari esker, dirua eta, batez be, kW asko aurreztu dirala dino alkateak. Izan be, aurreko urtean baino 37.000 euro gitxiago gastau ziran 2023an argindarrean Areatzan.

### HAPOA eta kulturea

Inbersinoetarako, igaz baino %28,42 gehiago dago aurten. Hau da, guztira 383.087,91 euro, kapitulu honetan. Diru partidari nagusia, HAPO aholkularitza zerbitzurako da; 74.200 euro, hain zuzen be. Sareen garraio eta azpiegituretako, 60.000 euro dagoz eta beste 40.000 azpiegitura urbanizazinarako. Gastuetan igoerarik handiena, basoen aprobe-xamenturako da. Horretarako 28.800 euro dagoz.

Irudi korporatiboa aldatzeko be prozesu parte-hartzaile bateri ekingo deutesie uda ostean. Aparkaleku bat be egin gura dabe aurten eta auzoetarako karteletarako be diru partida bat dago.

Kulturak herrian daukan garrantzia azpimarratu eban alkateak. "Herrian 12 bat ikastaro daukaguz, 170 persona dagoz apuntuta, biztanleriaren %15". Bere esanetan, ikastarok "garrantzia handia daukie, ez bakarrik jente kopuru-

gaitik, baita ikastarok herria egiten dabelako: jentea batu egiten da-ta, giro onean". Dirulaguntzetarako eta hitzameneterako 30.356 euroko diru partidea dago.



### EAJ-PNVren kontrako botoa

EAJ-PNVk osoko zuzenketa eta 10 zuzenketa partzial aurkeztu eban. Izan be, euren eretxian "aurkeztutako aurrekontuari genero azterketea falta jako, baita herritarren eta erakundearen parte-hartzea be eta legegintzaldiaren hasikeratik egin doguzan proposamenei kasurik ez" deutse egin udal gobernua. Aurrekontuek Areatzako egoerearen diagnostikorik ez daukiela eta finantza kudeaketeak, "etorkizuneko inbersinoak oztopatuko dituan zorpetze beharra" sortu dabela dinoe jeltzaleek. Kulturari jagokonean, Plan kulturalik ez dagoala dinoe.

ARTEA/LEMOA

## Palestinaren aldeko konzentrazioa egongo da hilaren 3an

### Erredakzioa

Martiaren 3an 12:30ean, Gemikatik Palestinara. Elkartasun deiadarra. Genozidioa amaitu herri ekimenagaz bat egiten dauan Artea Palestina Elkartasun taldeak deituta, agerraldia egingo da Arteako plazan. Agerraldiak hiru helburu ditu: Netanyahu nazinoarteko epaileen aurrera eroatea, Gazan alkartasun proiektuak bultzatzea eta Palestina leku guztietan ikustarazotea. Ekin-tza honetarako, antolakuntzeak, Palestinako zapiak eroatea eskatzen deutse partaideei.

Elkarretaratzearen ostean, jantza bat egingo da eraildako ume, andra eta gizonen omenez eta Genozidioa gelditu manifestua irakurriko da. Kausarako dirua biltzeako Futbolin Txapelketea antolatu dabe Artea Palestina Elkartasuna taldekoek eta materiala be salduko dabe.

Lemoan be martiaren 3an, domekea, 12:00etatik 14:00etara alkartasun ekimena egingo dabe Arraibin.

## AREATZA

## Hogeta hamar bat lagunek hartu eben parte HAPOren parte hartzeako lehen dinamikan

Areatzako Hiri Antolamentuko Plan Orokorra (HAPO) jakinarazoteko jentearreko berbaldia egon zan eta herritarren parte hartzeako lehenengo dinamikea egin zan urtailaren 31n. 29 lagunek hartu eben parte dinamika horretan.

### Erredakzioa

HAPO zer dan, partaidetzea, HAPOaren edukia, parte-hartze dinamikea eta bateratze-lana eta hurrengo pausuak azaldu ziran han. Partaidetzaz arduratzen diran, Jone Belausteguigoitia Garaiza LurStudiokoak, Ainhoa Gil Castresana Createlli-koak eta Pablo Maguregui Lopezek idazketaz arduratuko dakan gidatu eben saioa.

Herri bateko espazio eta eraikinak antolatutako tresna juridiko nagusia da Hirigintza Plan Orokorra. Teorian 8 eta 12 urte bitarteko indarraldia izaten dau baina askotan luzatu egiten da, egiteko prozesuak be urteak hartzean ditualako. Areatzan indarrean dagoana, berbarako 2006koa da. Oin dala urte bi hasi ziran HAPO barria egiteko lanetan, eta prozesuak beste hiru urte gehiago luzatutea espero da, "fase guztiak modu jarraituan burutzen badira" Ainhoa Gilen berbetan.

Areatzak 7.000 biztanle baino gitiago daukanez, planaren behin betiko onespina, BFari jagoko.

### Faseak

Areatzako HAPOa lehenengo fasean dago, diagnostiko moduko Aurretikoak izenekoan. Eta beste lau fase egongo dira: Aurrerakina, Hasierako onespina, Behin-behineko onespina eta Behin betiko onespina. Oingo fasean, azterlan soziourbanistikoa, etxebizitzaren egoeraren azterketa eta azpiegituren eta garraioen azterketak egingo dira, besteak beste. Hurrengo fasean, erispideak eta helburuak definituko dira eta al-



ternatibak proposatu. Prozesu honegaz guztiagaz batera, ingurumen tramitazioa be egingo da. Udal webgunean, atal bat egongo da informazio guztia emoteko.

Diseinetan hasibari dan Plan Orokorra, espazioari eta eraikinei lotutako gaiak eta zeharkako gaiak landuten dauz. Espazioari lotutakoak, ingurune naturala, mobikortasuna eta espazio publikoak dira; eraikinei jago kienean, etxebizitzak, jarduera ekonomikoari lotutakoak eta udal ekipamentuak, eta zeharkako gaiak, ondarea, klima aldaketa eta osasuna eta inklusibitatea eta euskera dira.

### Parte hartzeako dinamikea

Areatzaren gaineko diagnostiko parte-hartzailea egitea izan zan dinamikearen helburua. Horretarako, HAPO 9 gaitan banandu zan, 3 gai panel bakoetako. Gaiak hurrengoak izan ziran: ingurune naturala, mobikortasuna, espazio publikoa, etxebizitza, jarduera eko-

nomikoa, ekipamentuak, ondarea eta identitatea, klima aldaketa eta osasuna, eta inklusibitatea eta euskera. Hiru taldean bananduta, txandaka joan ziran talde guztiak hiru paneletan eta 9 gaitan parte hartzera. Gai bakoetean, hainbat konturen gaineko eretxia galdetu jakien, mantenu eta hobetu beharreko alderdiak azpimarratuz. Panel bakoetean Areatzako mapa bat egoan, kontu espezifikoak modu grafikoan kokatzeko.

"Saioaren balorazioa ona izan da; izan be, parte-hartzaileen kopurua espero baino handiago izan zan eta giro parte-hartzaile ona nabaritu zan. Hiru panelek gai eta talde guztien ekarpenak jaso ebezan, eta agerian geratu zan parte-hartzaileen artean eztabaidak eta alkarrizketak ezarri ziralako panelak beteteko orduan" azaldu deusie BEGITURI saioa gidatu eben teknikariek.

HAPOn parte hartzeako gida bat prestatu dabe, Udaleko webgunean egongo dana.

## ARANTZAZU

## Feminismoaren gaineko formakuntza ikastaroa Arantzazun

### Erredakzioa

Emakume mugimenduen erantzun tresnak emon gura ditu jakitera Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako tailerrak, Idoia Eizmendi eta Emagin alkartearen eskutik. Horretarako ordu biko, 18:00etatik 20:00etara, hiru

saio egongo dira: hiru barikutan, martiaren 15, 22 eta 29an, hain zuzen be. Arantzazuko Kultur Gunean izango dira saiook.

Mobimentu feministatik, patriarkaduari zelan erantzun landuko da ikastaro honetan. "Erakunde eta gizarte mailan preminazko erantzun egokien

alde, eta era bateratuan arraun egiteko tresnak ezetu, bildu eta barriak sortzeako ariketea" da Arantzazun emongo dan tailerra. "Proposamen honegaz, tokian toki, andra taldeok bizi doguzan egoera ohikoei erantzunen bila alkartuko gara" dinoe Andren Jabekuntza Eskolatik.

## IGORRE

## Hilaren 11tik aurrera erosi ahal izango dira Bonodenda kanpainako bonuak

### Erredakzioa

Hamar euroren truke erosi eta dendan hamabost euroko balio izango daben 3.500 bonu ipiniko dira salgai martiaren 11n. Igorren errodatuek, martiaren 11tik aurrera erosi ahal izango dabez eta gainontzekoek martiaren 18tik aprilaren 5era edo bonuak agortu arte. Kanpaineak jentea herrian bertan erostera animetea dauka helburu eta herriko 47 komertzio batu dira bertara.

Erosketa bakoetean, gehienez bonu bi erabili daitezke, baina erosketaren zenbatekoa txikiago bada, ez da dirurik itzuliko. Bonuak, Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan erosi daitezke, as-

telehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara.



## LEMOA

## Oinezkoen segurtasuna hobetuteko pasabide adimendua Estazino kalean

Lemoako Udalak oinezkoentzako pasabide adimenduna ipini dau Estazino kalean, tren geralekuaren parean.

### Erredakzioa

Trafiko handiko lekua da eta oinezkoentzako arriskutsua da, batez be gauzez. Teknologia honegaz, argien bidez, zebra-bidean oinezkoak dagozala ohartu arazoten deuse gidariei.

Kotxepin Kultur Etxean be beste holango bat dago; herriko puntu arriskutsuetan dabizala ipinten dino Urko Garamendi zinegotziak. "Lemoaztarren laguntzeagaz puntu arriskutsu horreek identifikatu genduzan. Arreta ipini dogu trafikoaren eraginaz dagozan puntu arriskutsuak saihesten"

azaldu deusie BEGITURI. Helburu horregaz, Amorrortu tabernearen ondoan dagoan zebra-bidean be semaforoa ipiniko dabe.

### Pasabide adimendua

Estazino kaleko oinezkoentzako pasabide barriari esker, lehendik egoan bide-seinaleztapena indartu egin da. Pasabidea, zoru instalatutako argi plakez eta sensorizazio sistema daukien argi seinale bertikal biz osotuta dago. Sensoreak, oinezkoen bat detektetan dabe nean, aktibetan dira. Holan, argiek, zebra-bidean oinezkoak dagozala ohartu arazoten deuse gidariei.





ARRATIA

# BideON Arratianek Bilboko unibersidade campusetara eroango ditu ikasleak

Eskaerearen araberako garraio zerbitzua, ikasleak Deustuko Unibertsitatera, Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatera, Bilboko Ingeniaritza Eskolara eta Mondragon Unibertsitateko Bilboko Campusera eroaten hasi da. Hasikeran, unibersidadeko ikasleei egindako eskaintza, etxeko atetik hurreneko garraio publikora zan.



Urtailean ipini zan martxan BideON kanpaina Arratian.

Erredakzioa

Unibersidadeko ikasleak euren ikastegietara hurreratzeko ekimenak beste geldialdi bat dauka Ugaskoko biribilgunearen inguruan, Deustuko Zubiaren amaieran eta handik ibilbidea jarraituten dau Leioako unibersidadeko campusean dagoan atzen geralekuraino.

Zerbitzu honen ibilbideak berderatzi geraleku ditu: Zeanurin, Areatzan, Artean, Arantzazun, Igorren, Lemoan, Bedia, Bilbon (Ugasko-Deustuko Zubiaren biribilgunearen ondoan) eta Leioako unibersidade campusean. Atzen hori da ibilbidearen helmuga.

Zerbitzuaren prezioa 1,5 eurokoa da ibilbide bakotzeko.

Beste erabilzaileak

BideON Arratian ekimenaren beste hartzaileak eskualdeko biztanle guzietatik urrun dagozan etxebizitzetan erroldatutako 65 urtetik gorakoak dira. Kasu horretan, zerbitzuak etxeko atetik eskualdeko uriguneetara eroaten ditu. Kolektibo horretako kideak Galdakaoko anbulatoriora hurretratuko dituan garraio zerbitzua be egokituko da.

Bizkaiko Foru Aldundiak 900.000 eurogaz finantzatu dau proiektuaren fase pilotua. Fase hori urtebetez luzatuko da.

BEDIA

# Kultureak udal kontuen %18 hartuko dau Bedia 2024an

Zezeilaren 20an, onartu ebazan Bediak 2024ko aurrekontuak EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz.

Erredakzioa

Kontuen arabera, aurten 1.876.627 euro kudeatuko ditu Udalak. Hori holan, igazko hasikerako aurrekontua baino %25,01 handiagoa da aurtengo hasikerako aurrekontua, baina bakarrik %1,88 handiagoa 2023ko behin betikoagaz alderatu ezker.

Aurrekontuaren %18a kulturarako da; horretarako, 341.860 euro dagoz. Hor batzean dira jaiak, auzoetako jaiak, Bardin-tasun Plana, ikastaroak, Musika Eskolea, Gazteria, Euskera arloa, jubiladuak, ludotekea, Gazte Txokoa eta txangoak.

Inbersinoei jagokienean, Be-

diako frontoian gimnasioa egiteko 498.515 euro dagoz, HAPOrako 51.300 euro, Ereñoko bidea kon-pontzeko 57.023 euro eta Bide-

koetxeako espaloirako 133.457 euro. Atzen diru partida hori han-ditu egin beharko dala uste dau Aitor Sorriketa Bediako alkateak.



EH Bilduren abstentzinoa

Bediako EH Bilduk abstentzinoa azaldu eban zezeilaren 20ko osoko bilkuran. Aurrekontuak onak iruditen jakiezala eta ez ebe-la kontrako botorik emongo esan eban EH Bilduko Alberto Sanchez-ek. Aldeko botoa ez emoteko erra-zoia, aurrekontuak egiteko modua eta denporeari lotuta egozala esan eban, oposizinoko taldeak aurrekontuak egiteko parte hartze eta ekarpenak egiteko aukerak murrizak izan dituala-ta.

UBIDE

# Ubideko hegoaldeko sarbidea zarratuta egongo da lanak amaitu arte

Erredakzioa

N240 kaminoaren hegoaldeko Ubideko sarrerea eta urtekerea, hau da Arabarantzakoa, zarratuta dago zezeilaren 22tik eta holan segiduko dau obrak amaitu arte. Hori dala-ta, bitartean, iparraldeko sarreratik; hau da, Bizkaikotik, sartu edo urten behar da. Auto-bus geralekua be lekuz aldatu da.

Sarbide horretan segurtasuna hobetutea ubidezarren aspaldiko eskakizuna da. Izan be, Stop-a bide erdian dago eta Ubidera sar-tzerakoan, kamioiak ondo-ondotik pasetan dira, alde bietatik, gidarien segurtasuna arriskuan ipiniz. La-nek, euren be segurtasun arazoak

sortzean ditue eta obrak egin bi-tartean, arriskua gitxitzeko neurriak aztertzen dabil Udala. Bitartean,

Bizkaiko urtekeratik urteteko Sale-roarino joan eta han bueltea emo-tea gomendatzen dau Udalak.



**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zelakoentzari elkagaiak  
esteziziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56

L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Behin-behineko proiektuak*

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrak (irakitzeko, lantzek, basoak...)
- Etxebizitzak (berrak, berrak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balarazioak

*Behin-behineko proiektuak*

- Irakitzeko erakundeak
- AAT/lehakunde-proiektuak
- Garaio diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Ingeniaria ohikularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Lizentziadun Agirre 23, Sarriena - Agirre  
94 631 51 89 - 455 96 31 31  
21 677 11 00 00 - 21 677 11 00 00  
arratia@arratia.com

**Kili-Kili**  
Amoia eta Puzifikatza

Lehendakari Agirre 10 - 48088 (Mikolo)  
Tel: 94 472 43 81

**ASESORIA Gorbeialde**

Juridikoa - Fisikala - Lanekoa - Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Olaetxe**  
OPTICA OPTICA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsioa
- Lentilen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**begitu**  
eus





# #GEROAMOREADA

1. Gure geroa MOREA nahi dugu, ez dago zalantzarik.
2. MORE hasi eta hezi nahi ditugu gureak eta mundua.
3. Errespetua, maitasuna eta elkarlana MOREAK dira.
4. MOREA ez da egun bat, morea bizitzan izateko modu bat da.
5. MOREA maitasuna oinarri duen iraultza feminista da.
6. Forma eta izen asko ditu kolore honek eta denak MOREAK dira.



M8-ARTEA





**Martiak 8, barikua**  
21:00etan, Dj Watxas  
Herriko Tabernan.



**Aprilak 19, barikua**  
19:00etan, Irune Costumeroren  
*Gurasoen Alienazio Syndrome*  
*faltsua, umeen kontrako tortura*  
*instituzionala* berbaldia Kultur  
Gunean.

**MARTXOAK 8  
GORA  
EMAKUMEEN  
BORROKA!**



Arantzazuko Udala

erosketak  
**%33**  
merkeago

Igorre  
gure dendarak

**Etorri Igorrera  
erosketak egitera!**

**15€KO BALIOA DU  
PREZIOA: 10€**

Martxoaren 11tik  
apirilaren 30era

ANTOLATZAILEAK

IGORRE

ame

Osakidea Herriko Taberna

**Gure**  
ikastetxeak  
Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoia

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urtetan 18ra

**BARDINTASUNAREN  
ALDE LANEAN!**

**ERR·TA**  
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

**ZULAIBAR**  
ARRATIAKO LANDEKARITZAN











## MARTIAK 8

# Gure bizitzakaz negoziarik ez! izango da martiaren 8ko leloa Arratian

Arratia osoan ikusiko dira bandera moreak eta entzungo dira aldarri feministak martiaren 8an. Izan be, aurten, Arratia mailako manifestazina joateko, hiru zutabe urtengo dira Arantzazu, Dima eta Lemoatik. Lemoakoak, 18:30ean batuko dira Garakoiko autobus geralekutik Igorrera oinez joateko eta Igorrekoakaz eleiza aurrean batuko dira. Dimakoak, BATZen batuko dira 19:00etan, eta Zeanuri, Areatza, Artea eta Arantzazukoak, Arantzazuko plazan, 19:00etan. Manifestazina 19:30ean hasiko da Igorreko Kultur Etxean, "Gure bizitzakaz negoziarik ez!" leloean. Izan be, zemendiaren 30eko greba feministan legez, zaintza sistema publiko eta komunitario bat aldarrikatuko dau Arratiako Mobimentu Feministek.

**Erredakzioa**

Aldarrikapenak pisu handia hartuko dabe aurten eta mobilizazioak goizetik hasiko dira martiaren 8an. Lemoan, 08:30ean, Zaplast talde feministek lapiko-jotea antolatu dau, eta eskolan, udaletxean, Plaza Gorrian eta Atxetako plazan entzungo dira lapiko hotsak. Bazkalostean, 17:30ean, elkarretaratzea egingo dabe Plaza Gorrian eta 18:30ean, Garakoiko autobus geralekuan batuko dira, oinez, alkarregaz eta banderatzu moreakaz Igorrerantz abiatzeko.

Arratiako herri guztietakoak Igorreko manifestazina deituta dagoz baina herrietan be, herri mailako elkarretaratzeak egingo dira egun horretan. Esate baterako, Bedian, 19:00etan egingo dabe agerraldia herriko plazan; Diman, 18:00etan, Igorrera joan aurretik errotandan, eta Zeberion 13:00etan egongo da konzentrazio instituzionala udaletxe aurrean.

Hurrengo egunean, martiak 9, zapatuan, Ganbara Feminista izenpean Arratiako Gazte Egun Feminista antolatu dabe Areatzako Laminetxe Gaztetxean. 10:30ean batuko dira gazteak, armozau eta esnatze jolasak egingo. Gero, 11:30ean, feminismoaren objektu estrategikoaren gaineko berbaldia egingo dau Uma Ulazia Euskal Herriko Neska\* Gazteen Sareko kideak. 14:00etan, partaideek alkarregaz bazkalduko dabe bakotzak etxetik eroandakoagaz eta arrastian, bingotzat musikatuak, jolasek eta poteo musikatuak osotuten dabe egitaraua. Amaitzeko, gauean Mikosis taldearen kontzertua, ekitaldia eta DJ Plast egongo dira.

## Martxoak 8 marzo

### GURE BIZITZEKAZ NEGOZIORIK EZ!!

<b>MARTXOAK 3</b> Marzo <b>WIKIEMAKUMEOK</b> Dokumentala 18:00 ARTEAKO KULTUR ETXEAN	<b>MARTXOAK 6</b> Marzo <b>TERAPIA-</b> Lorena Arangoa Antzezlana 18:00 DIMA- ESKOLAKO GANBARAN
<b>MARTXOAK 7</b> Marzo <b>AKORDETAN NAZ AHIZTU EZ ITEKO</b> <b>Zeaniko andrek kontaute- Dokumentala</b> 18:00 ZEANURI - Kultur etxean	<b>MARTXOAK 8</b> Marzo <b>ALDARRIKAPEN EGUNA</b> 8:30atik aurrera herrian zehar kazeroladak- eskolatik hasita. 11:30- Hamaiketakoa-Atxetako Arkupetan 14:30- Bazkarie karabie gaztetxean 17:30- KONZENTRA- Plaza Gorrien 18:30- GARAKOI BUS PARADAN IGORRERANTZAKO ZUTABEA EGUNEAN ZEHAR LEMOA
<b>MARTXOAK 8</b> Marzo <b>DJ WATXAS (Eibartik)</b> Musika saioa 21:00-24:00 ARANTZAZU - Herriko taberna	<b>MARTXOAK 8</b> Marzo <b>"EMAKUMEAK MUNDUA ALDATZEN"</b> Elsie Xalbador- Zirkugintza konpainia Adin guztientzat Ipuin kontalaria 17:30-18:30 BEDIA <b>BEDIAKO PLAZAN BERDINTASUNAREN ALDEKO AGERRALDIA- UDAL BERDINTASUN ARLOAK DEITUA</b> 19:00 BEDIA
<b>MARTXOAK 9</b> Marzo <b>GANBARA FEMINISTA- Gazte egun feminista</b> 10:30- EGUNEAN ZEHAR AREATZA	
<b>MARTXOAK 10</b> Marzo <b>SULTANAREN AMETSA</b> Pelikula Jatorrizko bertsoa - azpigituloak euskaraz 19:30 IGORRE- Lasarte Aretoa	

## MANIFESTAZIOA

### 19:30 IGORREKO KULTUR ETXETIK



Aldarrikapen feministez gainera, jente-artean konzieniazina bultzatutako jardura kultural ugari egongo dira martian. Batzuek, martiaren 8aren inguruko beren-beregiko egitaraua osotuten dabe, eta beste batzuek urte osoan zehar egiten diran jarduerak dira, oingo hilean, ikuspegi feminista agirikoagaz, aldarrikapenak jasoten dabezanak. Hori dala-ta, talde feministek, alkarrekin, udalek eta beste erakundeek egitarau potoloak prestatu ditue herrietan eta herri bakotzeko ekintza batez Arratia mailako kartel bateratua be osotu dabe.

#### Dokumentalak, bakarrizketea eta DJa Arratiako eskaintzan

Hamarkada bat baino gehiago da, Arratiako sarea (talde feministak, andra taldeak, udalak eta abar), AUMko Bardintasun teknikariagaz alkarlanean, martiaren 8an eta zemendiaren 25ean, kartel bateratua egiten hasi zala. Helburua ez zan bakarrik ekintza aukeraketa bat eskaintzea; data horretan, Arratia mailako aldarri eta ikuspegi feministako egitaraua eskaintzea baino. Idea zan, eskualdeko andrak ez bakarrik joatea euren herrietako ekintzeta, Arratiako beste herrietako ekintzetan parte hartzea bultzatzea be, alkar ezetu eta saretzeko aukerak indartuteko.

Arratia mailako karteletan lehenengo ekintza Artea izango da martiaren 3an, 18:00etan, Kultur Etxean. Kafrangak Arteko talde feministek, Wikipedian andren biografiak sartzean dauan Wikiemakumeok taldearen genealogia azalduten dauan DOnKumental KORALboratiboa WikiEmakumeOK taldearen genealogiaz



# GANBARA FEMINISTA

## ARRATIEKO GAZTE EGUN FEMINISTA MARTXOAK 9 - LAMINETXE GZTX

10:30 ARMOZUE ETA ESNATZE JOLASAK  
11:30 HITZALDIE:  
FEMINISMOAN SUJETU ESTRATEGIKOAZ  
UMA ULAZIA

14:00 BAZKARIE  
MENU BEGETARIANO - TIKETAK 6€:  
• AREATZA: HAGIÑA TABERNA  
• IGORRE: AXULAR HERRIKO TABERNA  
• LEMDA: KARABIE GZTX

15:30 BINGO MUSIKATUE  
17:00 JOLASAK PARTY & GO  
19:00 POTEK MUSIKATUE

22:00 KONZERTUE: MIKOSIS  
23:00 EKITALDIE:  
ARRATIE FEMINISMOZ BUSTIKO DOGU  
23:30 DJ PLAST!



izeneko dokumentala eskainiko dau. Zuzendaria egongo da bertan, baita Marisa Barrena wikilaria be emondako tailerretan bistaratutako andren biografien barri emoten.

Diman, martiaren 6an, 18:00etan, Lorea Arangoaren *Terapia* izeneko bakarriketea egongo da eskolako kameran. Historian zehar itzalpean egon diran andren istorioak dakar Arangoa klownak bakarriketea honetan: andrazko personaia historikoak terapia saio baten alkartzuz.

Zeanurin, hurrengo egunean, hilak 7, 18:00etan, Zeanuriko andren memoria jasoten dauan *Akordetan naz ahiztu ez iteko* dokumentala egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Arantzazun, martiaren 8an bertan, 21:00etan, manifestazioaren ostean, DJ Watxas egongo da jantzan egiteko musika feministea ipintzen Herriko Tabernan.

### Beste jarduera kulturalak herrietan

Arratia mailako kartelean herri bakotzeko ekintza bana agertu arren, herri gehienetan egitarau oso bat prestatu dabe konzienzia feministea gizarteratzeko. Lehenengo ekintza, martia hasteagaz batera izango da. Martiaren 1ean, Arteako Kultur Etxean *Munduko emakumeak* ipuin kontaketea egongo da, Ameli eta Xirrikitu jostunek taldearen eskutik. Kontaketearen ardatza andra migratzaileak izango da; euren

herrialdeetatik urten behar izan daben andren errealitatea, ipuinen bidez, jakitera emoteko. Itziar Telletxeak eta Amaia Elizagoienek osotuten dabe taldea. Hilaren 10ean, La Basu rap abeslariak kontzertua eskainiko dau Herriko Bentan.

Bedian *Emakumeak mundua aldatzen* ipuin kontaketea egingo dau Elsie Xalbadorrek martiaren 8an, 17:30ean, liburutegian. Lan honetan, Xalbadorrek ezagunak ez diran baina zeozer garrantzitsuak egin daben andra bereziak omentzen ditu, Wangari Maathai, 2004an Bakearen Nobel Saria jaso eban lehen afrikarra, tartean.

Kartel bateratuko *Terapia* antzerkiak gainera, Iratxe Ormatza imatzen *Printzak begietan* liburuaren aurkezpena dakar Andraizea Dimako andren taldeak, hilaren 7an, 19:00etan, liburutegian. "Handiak izan dira aldaketak XX. mendean: jentea lan bila etortea, zinema eta gainontzeko asmakizunak, iraultza asmoak, gerra ankerra eta gerraoste luzea, txabolak, askatasun ametsak barriro itzartzea... Bitartean gauza batzuk ez dira horrenbeste aldatu: pobreen zapalkuntzea, euskerearen gitxiespena, andren azpiratzea... Horri guztiari aurre egiteko, indartsuak izan dira libertade egarria, langileen alkatasuna eta andren ahiztasuna. XX. mendeko hamarkada bakotxari istorio bat sortu deutso Ormatzak, eta ipuin bakotxean andra baten bizipenak

kontau. Hamar andra Bilboko kaleetan zehar, giro sozial, politiko eta kulturalak zeharkatzen dituala, minez eta pozez".

Igorreko agenda be morez jantziko da hileon. Holan, martiaren 8an, manifestazioaren aurretik, 18:00etan, Eidabe Ekimen Kulturalak-ek *Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak* antzezlanaren ekarriko dau Lasarte Aretora; hurrengo egunean, hilak 9, 20:00etan, Udal Liburutegiak antolatuta baina Lasarte Aretoran, Amparo Noguesen *Todas las hembras que habito* ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da. Klowna, jantzea, musikea, zuzeneko abestiak eta gorputz joko asko buztartzen ditu 7 urtetik gorakoentzat zuzendutako lan honek. Ikuskizuna istorioen sorta bat da, "andren bizitzako uneez berba egiteko beharrezanetik sortzean da. Badira momentu samurrak, tristeak, mingotsak, baina baita alaiak eta dibertigarriak be"

"Hamarkada bat baino gehiago da, Arratiako sarea (talde feministak, andra taldeak, udalak eta abar), AUMko Bardintasun teknikariagaz alkarlanean, martiaren 8an eta zemendiaren 25ean, kartel bateratua egiten hasi zala"

## GURE BIZITZAKAZ NEGOZIORIK EZ

**MARTEK 6** 18:00 **TERAPIA** antzezlan eskolako kameran

**MARTEK 7** 19:00 **PRINTZAK BEGIETAN** Iratxe Ormatza imatzen liburuaren aurkezpena Liburutegian (Liburutegiak alkarlanean antolatuta)

**MARTEK 8** 17:00 **ANDRAN PARKEA ATONDU** 18:00 **KONTZENTRAZIOA** andran parkean 19:30 **Igorren MANIEFA** (Dimako zutabea 19:00etan Batzetik) 20:30 **POTEKOA eta AFARIE** (herriko andrak antolatuta)

**ARDUREK HARTU!!!**

sinopsiaren arabera.

Domekan, Isabel Herguera animatzaile eta zuzendari donostiarren *Sultanaren ametsa* pelikula egongo da ikusgai, 19:30ean, ohiko zine saioan. Filma Donostiako Zinemaldian aurkeztu eban Herguerak eta Euskal Zinemaren Irizar saria be jaso dau pelikuleak. Herguerak ametsen podere eraldatzailea aldarrikatzen dau film honetan.

Igorreko Zineklubak, *La (des) educación de Cameron Post* ekarriko dau martiaren 14an, 20:00etan. Filmak, sexu orien-

tazinoa aldatzeko AEBko zentro batera eroaten daben neska lesbiana gazte baten istorioa dakar.

Zeberion, Beatriz Egizabalen *Magma mia* umorezko bakarriketea ikusteko aukerea egongo da martiaren 3an, 18:00etan, Hogarrean. Zeberiozarrak hormairudi bat be egitekoak dira. Hilaren 7ra arte materiala eroango dabe udaletxera, eta egun horretan, 18:00etatik aurrera udaletxe ondoan ipiniko dabe. Martiaren 9an, Sorgina Txirulina ipuin kontalaria egongo da arrastiko 18:00etan, Hogarrean.



**FUTBOLA****Hirunako bardinketea Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko zezeilaren 17ko derbian****Erredakzioa**

Andrazkoen B taldeak 0-14 irabazi eban Plentziaren kontrako atzen partidua eta Lemoako Harrobik 4-0 Ibaiondo Nerbioiren kontra. Gizonezkoen Arratia Ak ez dau lortzean partidurik irabaztea, atzen hamarrak daroaz irabazi barik, eta husna bardindu eban Getxoren kontrako atzen partidua. Gizonezkoen B taldeak Amorebieta B liderraren kontra eta andrazkoen Arratia Ak Burgos taldearen kontra ostera galdu egin ebezan euren atzen partiduak.

Andrazkoen Arratia A taldeak zezeilaren 25ean jokatu eban sailkapenean bigarren postuan dagoan Burgos taldearen kontra eta 0-1 galdu eban. 21 jardunaldiren ostean 34 puntu ditu Arratiak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Osasuna C taldearen kontra martiaren 9-10eko astegienean.

Andrazkoen Arratia B taldeak zezeilaren 25ean jokatu eban Plentzia taldearen kontra etxetik kanpo eta 0-14 irabazi eban. 20 jardunaldiren ostean 36 puntu ditu Arratia Bk eta bosgarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatuko dau Adiskideak taldearen kontra martiaren 2an, arrastiko 19:30ean.

**Gizonezkoak**

Gizonezkoen Arratia A taldeak zezeilaren 24an jokatu eban Urbietan Getxo taldearen kontra eta husna bardindu eban. Daborduko 10 partidua daroaz Arratiak irabazi barik eta 22 jardunaldiren ostean 23 puntu ditu eta hamalagarren dago, jatsiera postuetatik puntu bakarrera. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Sodupe taldearen kontra martiaren 2an, arrastiko 17:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak zezeilaren 25ean jokatu eban Amorebieta B talde liderraren kontra eta 5-1 galdu eban. 22 jardunaldiren ostean 25 puntu ditu eta hamahirugarren dago. Datorren partidua etxean jokatuko dau Artibai taldearen kontra martiaren 2an, arrastiko 17:15ean. Aurreko astegienean ostera Gizonezkoen Arratia B taldeak eta Lemoako Harrobik derbia jokatu eben Urbietan. Jente asko batu zan Urbietan eta partidua beroa ikusi zan. Arratia 3-0 irabazten heldu zan atsedendira baina jokalaria bat kanporatu eben. Bigarren zatian Lemoako taldeak bardindutea lortu eban.

oso ona izan zala arbitroak ebatzi batzuk hartu arte. Guri kalte egin euskun. 3-0 irabazten joan ostean bardindu egin euskun eta apurtxo bat sabore txarragaz gelditu ginan. Ze guk uste, hamaika hamaikaren kontra izan ezker, partidua gure alde amaituko zala" adierazo eban Jon Pujana Arratia B taldeko entrenatzaileak.

**Lemoako Harrobi**

Lemoako Harrobik zezeilaren 25ean jokatu eban Ibaiondo Nerbioi taldearen kontra eta atzen hiru jardunaldietan bardinketea lortu ostean 4-0 irabazi eban Lemoako taldeak. 22 jardunaldiren ostean 34 puntu ditu eta seigarren

postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Monte-

fuerte A taldearen kontra martiaren 2an, arrastiko 16:00etan.



**Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko derbia.**



**hurreratu egingo zaitu, zatoz**

**unibersidadera hurbilduko zaitu**



**Emon izena**

Autoaren ordeaz, garraio segurua eta jasangarria erabili zeuk gura dozunean.

**Unibersidadean ikasten badozu eta Arratian bizi bazara, gogarako garraio jasangarrirako bideON ARRATIAN zerbitzua dekozu eskuragarri.**

Zure etxeko atetik garraio publiko hurbilenera hurreratuko deusugu, bertatik unibersidadera joan zaitez.

Zerbitzua aurrez aurre eskatu ahal izango dozu bulego honetan, baita **bideON aplikazioaren** bidez edo telefono honetara deituta be:

[www.bideonarratian.eus](http://www.bideonarratian.eus)

**94 471 46 24**  
Lehendakari Agirre 11 - 48140 Igorre (Bizkaia)









## MENDI LASTERKETEAK

# Partaideen kopurua neurriragotu dabe Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketetan

Igaz jente asko egon zala eretxita, aurten Kolazinoko Mendi Eguneko antolakuntzeak partaideen gehienezko kopurua apur bat jaistea ebatzi dau.

### Erredakzioa

Kolazinoko Mendi Eguna martiaren 16an izango da aurten eta izen-emoteak bete egin dira ia hilebete lehenago Bediako lasterketa bietan zein martxan. Aurten lehenengoz umeentzako lasterketea be egongo da. Probak ez dira puntuagarriak izango koparako, herriko lasterketea izango dala eta datorren urtean saiatuko dirala barriro karrera Federazinoko egutegian ipinten azaldu deutso BEGITURI Jokin Zabala antolakuntzakoak.

Guztira 550 personak emon dabe izena Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketaren baten zein martxan parte hartzeako. Lasterketa luzean, 24 kilometrokoan, 250 partaidetan ipini dau langa antolakuntzeak; igaz 350 partaide izan zan kopurua. Hamasei kilometroko lasterketan eta martxan barriz, baktxean 150 partaide aurreikusten ziran (igaz 200 izan ziran), baina lasterketan "160era igon behar izan dogu kopurua eskari asko egon diralako eta jente asko kanpoan geratu dalako. Antza, 24koa gogorra bihurtu da eta 16koak euki dauz eskari gehiago" dino Zabalak. Aurreko edizinoetan atzenengo astera arte beteten ez zan martxea be, hilebete lehenago bete da aurten.

24 kilometroko lasterketea lantzen irabazi dauan Oihana Azkorbebeitia ez da egongo aurten bere lasterketa faboritoenetakoan dan honetan. Onditx Iturbe lasterkari igorretarra barriz, parte hartzeko da, eta lasterketea irabazteko aukerak baditu. Xabier Gonzalez "Errot",

Unai Intxaurreaga, Alex Ordeñana eta Jon Aingeru Arxetxe eta 16 kilometrokoan Igorreko Markel Iragorri eta Aner Gesalaga gazteak dira lasterketetan parte hartuko daben beste arratiar batzuk.

Ander Pesquerak, Hodei Samaniegok, Iñaki Olanok, Oihana Zubillagak, Uxue Zorrillak eta Ainhoa Celayak be emon dabe izena Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketetan.

### Ibilbideak

Aurreko urteetako ibilbidea mantentidu arren, aldaketa txiki batzuk sartu dituela dino Zabalak. "Tontor txiki bi errekeru gura izan doguz. Oin arte tapauta egozan pinudiakaz eta aurten garbitu egin dabez eta bide txiki bat errekeru dogu. 24 km-ko lasterketeak, normalean 1.700 metroko desnibel positiboa izan dau eta aurten, 1.750 metroko desnibela izango dau". Holan, lasterketea Bediako mendi ia guztietatik pasetan da: Santiagozar, Arginatx Atxa Txikerra,

Mandoia, Urdala, Gazteluzahar eta Zeata mendietatik, hain zuzen be.

### Ordutegia

Zapatuan, hilak 16, 08:30ean abiatuko dira martxistak Bediako plazatik; 10:00etan urtengo dira 24 kilometroko lasterketa luzeko lasterkariak eta 11:30ean, 16 kilometroko lasterketakoak. Aurten lehenengoz, umeentzako lasterketea egongo da 16:00etan. Edadearen arabera talde bi egingo dira: lehenengotik urtengo dira nagusitxoagoak, 5 kilometro egiteko eta ostean, txikerrenak 3 kilometroko ibilbidea egiteko. Lasterketa honek debalde dira eta antolakuntzeak alde aurretik izena emotea eskertuko leuke "boluntarioak, opariak eta abar antolatuteko".

Aurten bazkaria, lasterkari guztientzat izan beharrean, bazkariako izena emon dabenentzat eta boluntario guztientzat izango da. Plazan txosnea eta musikea egongo dira egun osoan.



## PELOTEA

# Rekaldetarrek jantzi ebezan II. Mugarri Desafioko txapelak

### Erredakzioa

Zezeilaren 23an jokatu zan Dimako plazako frontoian arratiar anaien arteko II. Mugarri Desafioa. Anaien artean osotutako zazpi bikoteren arteko ligaxkea jokatu ostean, bikote gazteenak heldu ziran finalera, Beitia zeanurizarrak eta Rekalde dimoztarrak. Atzen honek urten ziran garaile 8-18 irabazita. Antolakuntzatik be, harro agertu ziran desafioagaz; Joseba Etxebarria:

"Pozik sortu dan giroagaz, Rekaldetarrek eroan dabe txapela guztiz mereziduta; ea datorren urtean be holango beste bat egiten dogun".

Dimatik Rekaldetarrek, Asuatarrek eta Etxebarriatarrek; Zeanuritik Beitiatarrek eta Intxaurregatarrak; Igorretik Atutxatarrak eta Lemoatik, Erauzkintarrak egon ziran aurtengo desafioan. Herri eta familien arteko desafioa bakarrik ez, belaunaldi desbardinaren artekoa be izan zan txapelketea. Izan be, "helburue-

tako bat izan da, hainbat urtetan pelotea itxita izan daben anaiak eta gaur egun jokoan dabiz gazteak batu eta alkartasuna sortzea", zehaztu eban Etxebarriak.

### III. Mugarri Desafioa martian

Anaien artekoa amaituta, Bizkaiko eskualdeen arteko txapelketea izango da hirugarren desafioa: Arratia, Durangaldea, Ezkerraldea eta Lea-Artibai. Desafio honek hiru jardunaldi izango ditu, finalurreko

## MENDI LASTERKETAK

# Mendi lasterkarien Euskalmushing Trail Running taldea sortu da

Zazpi mendi lasterkarik osotuten dabe 2024ko denporaldirako taldea: Oihana Azkorbebeitiak, Asier Larruzeak, Ander Iñarrak eta Joseba Escuderok Nagusien mailan, eta Ricardo Santamariak, Jone Oart-Artetak eta Alluitz Bilbaok Junior mailan.



### Erredakzioa

Euskalmushing maskotentzako denda kateak, Arratian ditu oinarriak eta Igorren egin zan taldearen aurkezpena zezeilaren 17an. Bertan egon ziran taldeko zazpi lasterkariak eta antolakuntzakoak. Xabi eta Iñigo Bizkarguenaga anaiak, Iban Lorenzo, Iñaki Garcia, eta Felipe Rodriguez dira antolakuntzan dagozanak.

### Natura zaletasunean oinarritutako proiektua

Taldea sortzeako proiektua, antolakuntzakoan zaletasunetik sortu zan. "Antolatuten dogunok mendiko lasterketetan galapan egiten dogu. Gure mailan, jakina! Eta asko gustetan jakunez, proiektu hau ipini genduan martxan. Eus-

kalmushing, gure enpresea, maskoten munduan mobiduten da eta pentsau genduan, maskoten munduak eta mendiko lasterketek natureagaz lotura daukiela eta biak lotuta, proiektu polit bat egin geinkela" azaldu deutso BEGITURI Iñigo Bizkarguenagak.

Mendi lasterketetan gero eta zaletu gehiago egon arren, ez ditu futbolak, peloteak edo txirrindularitza besteko laguntzarik. "Kirol gogorra dala badakigu, oso sakrifikua eta laguntza gixi daukana. Eta hor sartu gara gu, ahal dogun guztian lagunduteko, dirua eta materialagaz, kirolarien zeregina errazteko asmoagaz".

Euskalmushing denda kateaz gainera, Merrell, Fante eta Bravery babesleen laguntzeagaz atera da aurrera proiektua.



bi eta finala. Zozketaz ebatzi ziran lehen partiduetako aurkariak eta beraz, Igorren martiaren 2an jokatu dan finalurrekoan Durangaldea eta Ezkerraldea egongo dira

aurrez aurre. Martiaren 9an ostera, Arratia eta Lea-Artibairen arteko norgehiagokea Ubiden jokatu da. Finala barriz, martiaren 17an izango da Otxandion.



## ANTZERKIA

Umeentzako antzerkia  
Kotxepin Kultur Etxean

## Erredakzioa

Txalo Produkzioak konpainiaren *20.000 legoa itsaspeko zaborretan* antzezlana ikusgai egongo da martiaren 9an, 18:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Julio Vernerren eleberrian oinarrituta, itsasoko kutsadurearen arazo larriaren gaineko hausnarketara proposatzen dau. Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Alfonso Diezek eta Aitor Fernandinek egiten dabez aktore lanak.

## Sinopsia

Itsas munstro izugarri batek alarma guztiak biztu ditu; bale handiena baino handiagoa, zitsu baten uger egiten dauana eta kolore askotan itxuraldatzen dan pizti honek ikara eta bildurra eragin ditu itsasoan dabizan marinelen artean. Ze pizti ikaragarri klase izan daiteken ikertzeraz abiatuko jaku itsasora Anorak, surflari trebe eta itsasozale amorratu.

Eta munstro baten partez, intenzino gaiztoko urpeko ontzi bat topatuko dau, Nemo kapitainak gidatutako urpekontzi malapartatu zitala. Gure lagunak, ustegabeen, itsas azpiko bidai luze bateri ekingo deutso, Nemo kapitainak gidatuta eta itsasoko barrunbeak ezetuz.



## KONTZERTUA

Harribitxi taldeak *Deiadar*  
Iana aurkezteko kontzertua  
emongo dau Lemoako  
Kultur Etxean

## Erredakzioa

Aitor Urkizak eta Iker Alvarezek, Harribitxi taldeak, taldearen lehenengo estudioko diskoa aurkezteko kontzertua eskainiko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, martiaren 15ean, 20:00etan.

Diskoa 2022an argitaratu zan eta 10 kantuk osotuten dabe; danak, Harribitxi berak sortutakoak.

## Harribitxi

Harribitxi, euskal musika tradizionalen zuzturtutako musika garaikidea egiten dau. "Txistuaren eta musika tradizionalaren

garaikidetasuna eta izaera bizia aldarrikatzen dauan bikote artistikoa gara. Gure ikusmira artistikoa txistuaren erabilera barrien bilaketan, txistulari duaren sustaketan eta sormen barriko musika tradizionalen oinarritzen da. Izaera multi instrumentala daukan proiektu honetan txistuaren soinua danbolin, bonbete, ttun-ttun, pandero, shruti box indiarra, glockenspiel, gitara, mandolina eta ez ohikoak diran beste hainbat musika tresna harrigarriak batera eskaintzen dogu modu erakargarri eta dinamikoan" dinoe euren webgunean.

## FILMA

Animazinozko *Sultanaren ametsa* film feminista  
ikusgai Igorren

## Erredakzioa

Martiaren 10ean, 19:30ean, domeketako ohiko saioan, egongo da filma ikusteko aukerea Igorreko Lasarte Aretoan. Pelikulea Donostiako Zinemaldian aurkeztu zan eta euskal zinemaren Irizar saria jaso eban.

Isabel Herguera zuzendari eta animatzaile donostiarraren lehen filma da. Filmak Rokeya Hossainek 1905ean Indian idatzitako izen bereko liburua dauka abiapuntutzat. Ines protagonisteak, liburu hori topatzean, bidaia bat abiatuko dau Indiara, bere barrurako bidaia be izango dana.

*Sultanaren ametsak* andren egoereari buruz egiten dau ber-

ba, atzoko eta gaurko munduan gauzak zelan aldatu diran, baina ez hainbeste, bildurrari, umiliazi-noari, isiltasunari, menpekotasunari eta estigma sozialei buruz andra izate hutsagaitik. Filmak gizartean hain presente dagoan genero desbardintasunetik abiatuta, errealidade hori irudimenaren bidez errotik aldatzeko aukerea planteeten dau. Indiako ipuin ezaguna berreskuratuz, Herguerak ametsen podere eraldatzailea aldarrikatzen dau: fantasiaren balioa pentsamentu kritikoaren tresna moduan, adimenak eta ez indarrak zuzendutako mundu baten aukerea. Askatasunaren bilaketari buruzko film eder eta berezia da.

## ZINEKLUBA

*La (des)educacion de Cameron Post*  
Pelikulea egongo da  
Igorreko Zineklubean

## Erredakzioa

Martiaren 14an, 20:00etan, Igorreko Zineklubak Desiree Akhavanek zuzendurako *La (des)educacion de Cameron Post* 2018ko pelikulea eskainiko dau Lasarte Aretoan. AEBko film honetan, bere familiak neska gazte bat derrigortzen dau gazte homosexualen euren sexualitatea aldatzeko terapia zentro batera joatera. Filmak Sundance-ko jaialdian pelikularik onenari saria jaso eban.

## Sinopsia

Gurasoak hil ondoren, Montanako hamabi urteko neska bat izekoagaz bizitera joan behar da. Izekoa oso konserbadorea da eta neskearen bizitza gehiago konplikauko da persona homo-

sexualentzako errehabilitazio zentro baten sartzera behartzen dabenean, bere lagunik onenagaz egoera konprometidu baten topau ondoren.



## KONTZERTUA

La Basuk  
kontzertua  
eskainiko dau  
Artean

## Erredakzioa

Hilaren 10ean, eguerdiko 13:30ean, La Basu rap abeslariak kontzertua eskainiko dau Herriko Bentan.

Etxebarriko Elena Caballero Villanueva, La Basu, 1990eko hamarkadan hasi zan rapeatzen. Raparen munduan Euskal Herrian egoan andra bakarretako bat zan eta 1999an andrazko talde bat eratu eban, Jungla Urbana izenekoa.

2013an, *Remixes* maxia kalera-tu eban eta 2015ean *Aire es vida* diskoa. 2016an euskera hutsezko EPA atera eban, *Izotz erregina*. Eskina Femenina proiektuko kideek, La Basuk eta Aneguriak, alkarregaz abestu eben Gure Esku Dago kanpainako bideo-klipa 2018an.



## ANTZERKIA

Anbotoko Mari  
antzezlana  
multimedia  
egongo da  
Igorren

## Erredakzioa

Logela Multimedia Production Studioren *Anbotoko Mari* ikuskizuna, antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzean dituan antzezlana multimedia da. Hiru eta 10 urte bitartekoei zuzenduta dago eta hilaren 15ean, 18:00etan egongo da ikusgai Lasarte Aretoan.

## Sinopsia

Gari, mutiko txoriburu bat, lagunak haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Marien haitzuloan sartu eta harri magikoa lapurtu eta alde egingo dau, harria lagunei erakusteko asmoagaz. Anbotoko Mari atzetik abiatuko jako mendirik mendi eta Garik gero eta magia zorrogoak egingo ditu harriagaz. Marik, Tartaloren, iratxoan eta beste jeinu batzuen laguntza eskatu behar dau harria berreskuratzeko.



## KONTZERTUAK

# Zazpi taldek kontzertua joko dabe Kiñu Gaztetxean Soinu Basatiak kolektiboaren urteurrena ospatuteko

### Erredakzioa

Soinu Basatiak, Bizkaian kontzertuak antolatuteko sortutako kolektiboa da. Martiaren 2an, arrastiko 17:30etik, goizaldeko 03:30ak arte, Dame Area, Los Yolos, 80% Baul, Sei Segá, Katarsi, Seggs Tape eta S'Afferra Aferra taldeek kontzertuak eskainiko dabez Igorreko Kiñu Gaztetxean, punk musikea ez dala hil argi itxiz.

Dame Area Silvia Kostacek eta Viktor L. Crux-ek osotutako Bartzelonako bikoak, "musika eklektiko eta bereizlea egiten dau, synth konpulsiboa eta polirritmo primalak" hedatuz. Bere musikea, "burruka-musikea" moduan deskribidu izan da. Hiru disko ditu kalean *Ondas tribales* (2021), *Esto me pertenece* (2022) eta *Toda la mentira sobre Dame Area* (2022).

Modu oso librean ulertzen dau pop-a Los Yolos taldeak. "Delirioa eta pasinoa turmix batetik pasauta, euren abestietan dana da naturala, sena, bizitza bera legez". Disko bi kaleratu ditu taldeak *Rock Ciudad* (2021) eta *Nos siguen por delante* (2023). Hospitalet de Llobregat-eko

Raul Paezek, 80% Baulek, musika estilo propioa garatu dau, EBM (Electronic Body Music), post-punk, new wave, synth pop, italo eta new beat estiloen artean. Estilo honeek clubbing mobimentuaren oinarri musikala izan ziran. Mobimentua laster zabaldu zan Levante eta barrukalde osoan. Milaka gazte joaten ziran diskoteketara astegoienean, geroago "Bakalao ibilbidea" deitu eutsien mobimentuan.

Sei Segá Bilboko taldea, punkaren olatu barriak kokatu daiteke. Anarko-punkean zuzartuta, politikea oso presente dago bere abestietan. *Bilbo eta euria* izeneko bost abestiko EPa, kasetean atera dabe eta Youtuben be entzun daiteke.

Katarsi Bilboko taldeak izen bereko diskoa dauka kalean. Euskerazko eta gaztelaniazko 8 kantuk osotuten dabe *Katarsi* albuma. Musikeari jagokonean, punk landu eta zaindua egiten dau taldeak.

Seggs Tape Madrilgo hirukoteak rave punk musikea egiten dau. Speed-ak eragindako moduko riff-ek, garrasiek eta gogor jotako jostailuzko piano batek ikuskizun bihurtzen dabe kontzertua.

## AURKEZPENA

# Jon Maia Lemoako Karabie Gaztetxean izango da

### Erredakzioa

Bertsolariak *Kantu berri bat* gara disko-liburua aurkeztuko dau martiaren 1ean, 19:00etan, Lemoako Gaztetxean.

2021ean, Jon Maiak *Kantu bat gara* disko-liburua kaleratu eban. Bertan bildu ebazan 30 urtetan berak egindako kantak; Ken Zazpik, Garik, Negu Gorriak eta puntako beste talde eta musikariek ezagun egin dituenak. *Kantu bat garan* Maiak berak kantau ebazan, Pello Ramirezek (celloa), Gorka Herrosak (soinu handia) eta Nacho Sotok (pianoa) lagunduta. Oin, *Kantu bat garak* segida izan dau *Kantu berri bat garagaz*. Oingoan, kanta propioak ez ezik bersino batzuk be sartu ditu Maiak. Gainera, Nerea Quincoces perkusionistek egin dau hasikerako bandeagaz bat. Liburuan, Maiak bere iruditeria errepasau dau testu baten, street-art-eko erreferente dan Baluren ilustrazioakaz.



## ANTZEZLANA

# Historian ostenduta geratu diran andrak argitara ekarteko antzezlanaren Igorren

### Eidabe Ekimen Kulturalak-ek Kuku.

*Ezkutuan dauden emakumeak* antzezlanaren eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan, martiaren 8an, 18:00etan.



rako ume eta familiei zuzendutako argazki bilduma bat da, istorioez osotutakoa, ostenduta dagozan andrak argitara ekarteko.

### Argazkiz betetako kutxa

Vivian Maier argazkilaria izan zan baina bizimodua umeak zaintzen atera eban. XX. mendearen erdialdera argazkiak atera eta atera ibili zan eta askotan errebelau barik itxi ebazan. Material guztia kutxa batzuetan agertu zan, kamara baten, handik urte batzuetara.

Antzezlan honetan, eszenalekuan, argazkiz eta negatiboz betetako kutxa bat topatzen dabe antzezleek. "Nok ekarri dau? Zertarako? Norenak dira argazki horreek guztiak? Vivianenak dira? Antzerkia egingo dabe edo argazki horreek harrapatuta geratuko dira eta euren istorioak publikoagaz alkarbananduko ditue?".

### Erredakzioa

Olatz Gorrotxategiren zuzendaritzapean, Ana Garciak eta Leire Ormazabalak egingo ditue aktore lanak. Testua Imanol Ituiñorena da eta diseinu eta ilustrazioak Paul Caballerorenak.

Ikuskizuna sei urtetik aurre-

## DUNBA

# Internazionalizazioa



### Zeanuriko Zulaibar Lanbide Ikastegia

Arratiako bailara, Euskal Herriko bihotzean kokatuta, historia, kulturaz eta tradizioz jositako lekua, bertako paisaia erakargarri eta jentearen bizitzan errotua. Antxina-antxinatik, bere nortasuna

ahalegin eta izerdiagaz landu daben belaunaldien bilakaeraren lekuko izan dan herria.

Ha-ta guzti be, Arratiako historia ez da soilik iraganari mugatzen, Erasmus programearen moduan etorkizunera be proiektetan da. Programa hau, gazteen arteko mobikortasuna eta kultura-trukea

sustatzeko sortua izan zan, ate barriak zabalduz, bertako biztanleei atzerrian praktikak egiteko aukera eskainiz eta euren ikuspegiak zabalduz.

Honen bitartez, kulturak ezetutea, gaitasun profesionalak zein personalak hobetzea eta euren barruko begiradea garatzeaz gai-

nera, aukera barriak zabalduz be lortu izan dabe.

Etxera bueltatzerakoan, gazte horreek atzerrian lortutako eskarmentua ekarri dabe, ingurukoei munduko ikuspegiak eta negozio espirtua aberastuz. Atzerrian dagozan bitartean, bertako jakintzak garatzea lortzean dabe, Industria 4.0ko teknologietan, automatizazioan eta giza harremanetan besteak beste. Beraz, Lanbide Heziketako ikasleek barrikuntza teknologikoetan zein gizarteratzearen inguruko prestakuntza jasoten dabe, inguruko sektoreko aldaketetan parte hartzeako eta gaitasunak hobetzeko asmoz. Hori dala-ta, Zulaibarrek Erasmus programeagaz bat egiten dau, bai ikasle eta irakasleagaz iraultza

digitalerako bidean.

Azken baten, Arratiako jentearen historia, bere kulturaz eta zuztarretan errotuta egoteaz gainera, munduari zabalik be badago. Mendeetan zehar, bertako biztanleek aldaketak egitea jakin izan dabe, lurraldearen eta kulturearen esentzia bizirik mantendutea lortuz.

Gaur egun, Erasmus programearen eskaintzeari esker Zulaibarreko ikasleek aro barri bat idazteko aukera daukie, Arratiako nortasuna Europara eta mundura zabalduz eta mundukoa etxera ekarri.





AGENDEA

**MARTIAK 1  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoenetan, 09:00etatik 21:00etara. 20:00etan, Arratiako Musika Eskolako helduen kontzertua Bixer tabernan.

**ARRATIA**

Martiaren 13ra arte, Errigoraren kanpaina. Produktuak [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunean erosi daitezke.

**ARTEA**

18:00etatik 20:00etara, Arteako Mikel Deuna Jubilatu eta Pentsionisten Elkarsteak martiaren 20rako Bilboko portura antolatutako txangorako izen-emotea jubiladuen lokalean.

19:00etan, helduentzako ipuin kontaketea Amelie eta Xirrikituen jostunek-en eskutik, *Munduko emakumeak* Kultur Etxean.

**BEDIA**

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Asteleheneretik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizau da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Jaietako Kartel Lehiaketak. Lanak apirilaren 14ra arte aurkeztu daitezke liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 15era arte, bagilaren 25etik 28ra izango dan *Adimen emozionala* ikastarorako; garagarriaren 1etik 12ra izango diran Txiki Txoko eta udalekuetarako; garagarriaren 13tik 19ra izango dan Bediako Uda Gaztean eta garagarriaren 15etik 24ra izango dan Ludosport-erako izen-emoteak zabalik liburutegian.

**DIMA**

Hilaren 4ra arte, martiaren 8ko andren afarirako izen-emotea Baltzola jatetxean.

18:30etan, *Bizkarsoro* pelikulea eta ostean berbalgia eskolako kamarin.

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

**IGORRE**

Asteleheneretik eguenera liburutegia zabalik 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Hilaren 15era arte, *Emakumea eta euskal pilota* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

**LEMOA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

19:00etan, Jon Maiaren *Kantu berri bat gara* disko-liburuaren aurkezpena Karabie Gaztetxean.

Hilaren 15era arte, herriko komertzioetan 5 eurotik gorako erosketak egitegaitik, Korrikaren 30

pack-en zozketan parte hartuko da.

**UBIDE**

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestroi Trail mendit lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik [kronoak.com](http://kronoak.com) helbidean.

**ZEANURI**

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

**ZEBERIO**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etatik aurrera, erabilera anitzeko gelan Korrikaren aurkezpena eta *Oihaletxea* dokumentalaren proiektuz; ostean, Korrikako erropeagaz pasarelea eta materiala erosteko aukerea.

**MARTIAK 2  
ARTEA**

10:30ean, *Sentido/contenido/rasgos de la vivencia comun* mahai-ingurua Amador Fernandez Savater, Violeta Cabello eta Alfonso Dubois-egaz;

14:30ean, bazkaria; 16:30ean, Mar Garroteren berbalgia *Experiencias y retos desde la lucha comunitaria*, Proyecto comunitario Karmelako kide baten *La construccion de lo común en el ejercicio de la solidaridad social* berbalgia eta Xabier Barandiaranen *Autonomia, desarrollo y cuidado de lo común en las prácticas tecnopolíticas* berbalgia. Basoa defendatzaileen etxean.

**IGORRE**

17:30ean, Soinu Basatiak: Dame Area, Los Yolos, 80% Baul, Sei Sega, Katarsi, Seggs Tape eta S'Aferra Aferra taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

**LEMOA**

10:00etan, *Lemoa euskaraz gura duzu?* Euskera plana diseinetako Open topaketa, prozesuaren ondorioak Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEBERIO**

10:00etatik 13:00etara, Udalak antolatuta, *Frua arbolen inausketa* ikastaroa Unai Onaindia Mayor eta Kew Diplomaren

eskutik.

**MARTIAK 3  
ARTEA**

Artea Palestina elkartean taldeak deituta, alkartan aktiboa. 12:30ean, elkarretaratzea; 13:00etan, jantza eraildako ume, andra eta gizonak oroituz; 13:30ean, Genozidioa gelditu manifestua irakurri; 14:00etan, diru bilketak, Futbolin Txapelketea eta material salmenteagaz. Plazan.

18:00etan, *DonKumental KORALboratiboa WikiEmakumeOk taldearen genealogiaz* dokumentalaren emonaldia eta ostean berbalgia eta txokolatea Kultur Etxean.

**IGORRE**

17:00etan, zinea, *Wonka*, 19:30ean, *El maestro que prometió el mar* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

12:00etatik 14:00etara, Palestinatik Gernikara-ren alkartasun ekimena Arraibin.

**ZEBERIO**

18:00etan, Beatriz Egizabalen *Magma mia* bakarrizketea Hogarrean.

**MARTIAK 4  
BEDIA**

17:30ean, Yolanda Arrieta *Kontu kontari* familian Liburutegian.

**ZEBERIO**

Hilaren 7ra arte, martiaren 8aren inguruko murala egiteko materiala eroan udaletxera: plastikoak, albal papera eta gauza txikiak.

**MARTIAK 6  
DIMA**

18:00etan, *Terapia* antzezlan eskolako kamarin.

**MARTIAK 7  
ARTEA**

20:00etan, martiaren 8ko manifestazioaren ostean egingo dan soka-jantza prestatzeko saioa eskolako kiroldegian.



**Iñaki Iurrebaso soziolinguistaren berbalgia Igorreko Kultur Etxean**

Martiaren 13an, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean izango da Iñaki Iurrebaso *Euskararen egoera gaur, zer diote datuek?* izeneko berbalgian, euskerearen egoera aztertzen.

Berbaldi honetan, dagozan datuak aztertuta, "asko edo gitxi erabilten ete da euskerea dagoan ezagutzararako? Aurrera goaz ala atzera goaz euskerearen indarbarritze prozesuan? Ze perspektiba izan daikeguz aurrera begira? Zein paper jokatu lekie udalerrri euskaldunak euskerearen indarbarritze prozesuan?" moduko galderei erantzun eta diagnostiko barri baterako kakoak emongo ditu.

**DIMA**

19:00etan, Iratxe Ormatza Imatzen *Printzak begietan* liburuaren aurkezpena Liburutegian.

**IGORRE**

18:00etan, Arratia Lurralde Plan Partzialaren gaineko informazio berbalgia eta parte hartzeako tailerra Lasarte Aretoan.

**ZEANURI**

18:00etan, Zeanuriko andrek egindako dokumentala *Akordetan naz ahiztu ez iteko* Kultur Etxean.

**ZEBERIO**

18:00etatik aurrera, murala ipini eta bakotzak eroandakoagaz kopaua.

**MARTIAK 8  
ARANTZAZU**

21:00etan, DJ Watxas Herriko Tabernan.

**ARTEA**

18:00etatik 20:00etara, Arteako Mikel Deuna Jubilatu eta Pentsionisten Elkarsteak martiaren 20rako Bilboko portura antolatutako txangorako izen-emotea jubiladuen lokalean.

**BEDIA**

17:30ean, Elsie Xalbador ipuin kontalariaren *Emakumeak mundua aldatzen* ipuin kontaketea; 19:00etan, bardintasunaren aldeko agerraldia plazan.

**DIMA**

17:00etan, parkea eta herria atondu; 18:00etan, elkarretaratzea errotondan, gero danak Igorrean; 20:30ean, andren afariaren aurreko poteoa Axlor tabernan hasita; 21:30ean, afaria Baltzola jatetxean.

**IGORRE**

18:00etan, Eidabe Ekimen Kulturalak-en *Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak* antzezlan Lasarte Aretoan.

19:30ean, manifestazioa. Martiak 8.

**LEMOA**

08:30ean, lapiko-jotea eskolan; 09:15ean, udaletxean; 09:45ean, Plaza Gorrian; 10:15ean, Atxetako plazan; 11:00etan, hamaiketako Atxetako arkupeetan; 14:30ean, bazkaria Karabie Gaztetxean; 17:30ean, elkarretaratzea Plaza Gorrian; 18:30ean, Garakoi autobus geralekuan batu Igorrean oinez joateko.

**ZEBERIO**

13:00etan, martiaren 8ko kontzentrazio instituzionala udaletxe aurrean. Ondoren, kopaua.

**MARTIAK 9  
AREATZA**

Ganbara Feminista. Arratiako Gazte Egun Feminista. 10:30ean, armozua eta esnatze jolasak; 11:30ean, Uma Ulaziaren berbalgia feminismoaren subjektu estrategikoaz; 14:00etan, bazkaria; 15:30ean, bingo musikatua; 17:00etan, jolasak Party & Go; 19:00etan, poteo musikatua; 22:00etan, kontzertua Mikosis taldeagaz; 23:00etan, ekitaldia *Arratie fesminismoaz bustiko dogu*; 23:30ean, DJ Plast. Laminetxe Gaztetxean.

**BEDIA**

Zugatz Eguna. 10:00etan plazan batu

Aldaira joateko zugatzak landatzera. Ostean txitxi-burduntzia egongo da. Udalak sua eta mahaiak ipiniko ditu. Bakotzak eroan txorizoa eta ogia.

**IGORRE**

20:00etan, Amparo Noguesen *Todas las hembras que habito* ikuskizuna. Liburutegian.

**LEMOA**

18:00etan, Txalo Produzioak-en *20.000 legoa itsaspeko zaborretan* antzezlan Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEBERIO**

18:00etan, *Sorgina txirulina* ipuin kontalaria Hogarrean.

**MARTIAK 10  
ARTEA**

13:30ean, La Basuren kontzertua Herriko Bentan.

**IGORRE**

17:00etan, zinea, *Patrick*; 19:30ean, *Sultanaren ametsa* Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 11  
IGORRE**

Bonodenda kanpaina. 10:30etik 12:30era astelehen eguztzen eta barikuetan, eta 18:00etatik 20:00etara martitzen eta eguenera erosi lekiez bonuak (10 euroko prezioan eta 15 euroko balioa daukienak dendan) Igorren erroldatutakoek Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan.

**LEMOA**

09:30etik 12:00etara, Smarttrekking ibilaldi esperimental eta oparia. Gudarien parkean. Izena aldeztu aurretik emon 674 945 426 telefonoan.

**MARTIAK 14  
IGORRE**

17:00etatik 19:15era, Bizi Igorren 2030eko saio parte-harzailea Kultur Etxean.

20:00etan, zinekluba, *La (des)educación de Cameron Post* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

09:00etan, Lemoatx jubiladu eta pensinodunen alkarsteak antolatuta, Burgosera bidaia. Tallerretan.

**MARTIAK 15  
ARANTZAZU**

18:00etan, *Emakume mugimenduen erantzun tresnak* ikastaroaren lehenengo saioa, Idoia Eizmendi eta Emagin alkarstearen eskutik, Kultur Gunean.

**AREATZA**

18:30ean, *Bizkarsoro* filma udaletxeko areto nagusian.

**BEDIA**

18:00etan, Ainhoa Insunza Garcia kirol medikuaren berbalgia *Entrenamentu ikusezina kirol medikuntzan* liburutegian.

**IGORRE**

18:00etan, *Anbotoko Mari* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

20:00etan, Aitor Urkiza eta Iker Alvarez Harribitxi taldekoen *Deidar* kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.





# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkererako prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

#### ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratu. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

#### BASERRIA ALOKAIKUAN EMOTEN DOT

Baseria alokairuan emoten da Zeanuriko Ogarabeti auzoan. Interesdunek zenbaki honetara deitu: 656 734 202.

### LANA

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

#### KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umeei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

#### ZAINTZAILE BILA

Edadeko gizon bat zaintzeako norbaiten bila gabiz. Interesdunek deitu: 747 437 479.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina **sarrera Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak antzezlanerako.**

Ander Larrinaga (Igorre)  
Sara Gutierrez (Areatza)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina **sarrera Anbotoko Mari antzezlanerako.**

Nerea Barrenetxea (Lemoa)  
Andoni Garai (Dima)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tel. 94 631 92 00

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tel. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igoerre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel. 94-673-70-87  
Tel. 609-79-49-54

**begitu**  
**eus**



# begitu

## BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

### 2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte**a Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

[begitu.eus](http://begitu.eus)



Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

# MARTXOAK

EMAKUMEEN\* NAZIOARTEKO EGUNA

# EKIÑAZ HARRO!



Arratiako  
Udalen  
Mankomunitatea  
BARDINTASUN ARLOA